

# Ur



# Publikoa

*Uraren ziklo integralaren kudeaketa publiko, sozial, demokratiko eta jasangarria izateko eredu baten alde.*

*Por un modelo de gestión del ciclo integral del agua público, social, democrático y sostenible.*

**BIZKAIKO PLATAFORMA | PLATAFORMA DE BIZKAIA**

---

2019/03/21

Aurkezpen dossierra

Dossier de presentación

---



## AURKEZPENA

---

Hemen bildutako pertsonok, elkarte, sindikatu, eragile anitzetako zein unibertsitateko kideok, Bizkaian uraren kudeaketa sistemaz arduratuta gaude, eta oinarrizkoa den baliabide honen kudeaketa eredia sakonean aldatzeko konpromisoa agertzen dugu. Uraren ziklo integralaren kudeaketa publiko, sozial, demokratiko eta jasangarria izateko eredu baten alde egiten dugu. Eta lehenik eta behin, ura izatea oinarrizko giza-eskubidea dela aldarrikatzen dugu, edozein interes merkantilistatik at egon beharrekoa.

Plataforma hau Bizkaian ematen den uraren kudeaketatik arduratuta egotearen ondorioz jaio da: herritarren parte-hartzetik zein jasangarritasunaren erronka nagusietatik urrun den kudeaketa erabat teknokratikoa; lurraldearekin zein herritarrekin duen erlazioa. Gogoeta eragin digu, Uraren kudeatzaile nagusiaren zein erakunde publiko nagusien aldetik Bizkaian kudeaketa pribatuari eman nahi zaion bultzada. Egoera honen aurrean, ura izateko eskubidearen amankomuneko irizpideak barneratzearen beharra defendatzen dugu: parte-hartzea, informaziorako sarbidea, gardentasuna eta kontuak eman- hornidura zein saneamendu sistemen kudeaketa zein kontrol demokratikoaren oinarriak ezartzen dituztenak, alegia.

Ardura iturri dira: uraren kudeaketa-organoetan ematen den parte-hartze zein gardentasun eza, toki eta udal mailako ur-baliabideak alde batera uztea, saneamendu zein potabilizazio azpiegituren gaindimentsionamendua eta energia kontsumo handia, Bizkaitik kanpo dauden lurraldeetatik ekartzen den uraren gaineko menpekotasuna, politika tarifarioak zein horietatik jasotako diruaren xedea, uraren aurrezte politika eraginkorren gabezia, edota pertsona erabiltzaile ei eskaintzen zaien informazio ez gardena.

Plataforma honek, gaur aurkeztu dugun Manifestuaren sinatzaileen kopurua handitu, eta Bizkaian uraren ziklo integralaren inguruan dauden arazo ezberdinei laguntza eskaintzea du helburu. Hartara, uraren kudeaketaren inguruko arazoak dituzten bestelako mugimendu zein herriekin harremanetan gaude, bestek beste, Busturialdeko ur Partzuergoaren desagerpenaren ingurukoak, Karrantzako uraren kudeaketaren egoerari loturikoak edo Bakion planteatzen ari den tokiko ur baliabideen mantentzearen aldeko aldarrikapenak, bestelako tokiko errealitateekin batera edo arlo sozialean ematen ari dena, bono sozialen ingurukoak, kasu.

Gure helburu nagusia arestian aipatu problematikak gizarteratu eta Bizkaiko herritarrak uraren kudeaketa publiko, demokratiko eta jasangarriaren garrantziaz jabetu daitezen bada ere, erakunde publiko ezberdinetan, alderdi politikoetan eta uraren kudeatzaileak diren erakundeetan eragin nahi dugu ere. Norabide horretan, Manifestuan adierazten ditugun ataletan dinamikak abiatuko ditugu, ura %100 publikoa den ereduaren bidez kudeatu behar dela defendatuz, non herritarrak, herritarren eragileak zein elkarte ezberdinak kudeaketa horren



parte izango diren, non kudeaketa hurbila, jasangarritasunaren zein tokiko baliabideen erabileraren ikuspuntutik ere, ereduaren oinarri izango diren.

Gobernantzaren ikuspuntutik, gizartearen parte-hartze mailaren handitzea publikotasunaren inguruko erabakietan behar bat, betebehar bat, eta aldi berean hartu beharreko erabakien eraginkortasun zein zilegitasuna hobetzeko aukera dela defendatzen dugu. Printzipio hauek, legerian sartuta daude eta oinarrizko eskubide eta betebeharrak ezartzen dituzte.

Jasangarritasunaren ikuspuntutik, lurraldeari loturiko uraren kudeaketa defendatzen dugu, ur-baliabideen babesaren eta baliabide horien erabilera jasangarriaren defentsa egingo duena. Halaber, uraren zerbitzu kostuak eraginkortuko dituen, tarifa politika berrikusiko duena eta erabiltzaileak diren pertsona guztien inplikazio zein trebakuntza uraren erabileran zein parte-hartze aktiboan bultzatuko duena.

Norabide horretan, beste lurralde batzuetan sinatu Ur Publikoaren aldeko Gizarte Hitzarmenak oinarri hartuz, Bizkaiko herritarrei manifestu bat eta proposamen konkretu batzuk helarazi nahi dizkiegu.



# PRESENTACIÓN

---

Las personas aquí reunidas, representantes de asociaciones, sindicatos, colectivos y universidad, estamos preocupadas por el modelo de gestión del agua en Bizkaia y estamos determinadas a impulsar un profundo cambio en la manera que se gestiona a día de hoy este recurso esencial. Apostamos por un modelo de gestión del ciclo integral del agua público, social, democrático y sostenible. Y primeramente queremos reivindicar que el acceso al agua es un derecho humano que ha de estar libre de cualquier interés mercantilista.

Esta Plataforma nace por la preocupación por la gestión del agua en Bizkaia: una gestión tecnocrática alejada de la participación ciudadana y de los retos claves de sostenibilidad: la relación con el territorio y la propia ciudadanía. El impulso a una mayor privatización de su gestión desde el principal ente gestor y desde las propias instituciones es objeto de reflexión. Frente a esta realidad abogamos por la integración inmediata de los criterios comunes del derecho al agua: participación, acceso a la información, transparencia y rendición de cuentas- que establecen las bases para la gestión y el control democrático de los sistemas de abastecimiento y saneamiento.

La ausencia de participación y transparencia en los órganos gestores del agua, el abandono de los recursos hídricos municipales y locales, el sobredimensionamiento y el fuerte consumo energético de las infraestructuras de potabilización y saneamiento, la gran dependencia del agua proveniente de territorios de fuera de Bizkaia, las políticas tarifarias y el destino de lo recaudado mediante éstas, la ausencia de políticas efectivas de ahorro del agua, o la opacidad en la información facilitada a las personas usuarias son fuente de preocupación.

Esta Plataforma pretende ampliar el número de firmantes del Manifiesto que presentamos hoy, y servir de apoyo y ayuda a todas aquellas problemáticas ligadas con la gestión del ciclo integral del agua en Bizkaia. Así, estamos en contacto con otra serie de movimientos y municipios donde existe una problemática ligada a la gestión del agua, como pueden ser la desaparición del Consorcio de Aguas de Busturialdea, la situación problemática del agua en Karrantza o las reivindicaciones por el mantenimiento de los recursos hídricos locales que se está planteando en Bakio, junto con otra serie de realidades locales o en ámbitos concretos como en el aspecto social en relación a los bonos sociales.

Si bien nuestro objetivo principal es socializar esta problemática y concienciar a la ciudadanía de Bizkaia sobre la importancia de una gestión pública, sostenible y democrática del agua, queremos incidir en las instituciones, partidos políticos y entes gestores del agua, para que se impulsen profundos cambios en las políticas del agua. Vamos a impulsar dinámicas en distintos ámbitos para llevar adelante todos y cada uno de los aspectos reflejados en el Decálogo, abogando por que el agua se gestione mediante un modelo 100% público, donde



la ciudadanía, organizaciones ciudadanas y asociaciones puedan ser parte de esa gestión, donde la cercanía en la gestión también desde un punto de vista de la sostenibilidad y utilización de los recursos locales sea el eje del modelo.

Desde el punto de vista de la gobernanza, abogamos por una intensificación de la participación de la sociedad en las decisiones sobre lo público como una necesidad, un deber, y una oportunidad para mejorar la funcionalidad y legitimidad de las decisiones tomadas. Estos principios están incorporados en la legislación y establecen deberes y derechos fundamentales.

Desde el punto de vista de la sostenibilidad reivindicamos una gestión del agua ligada al territorio, que abogue por la protección de las fuentes de agua, y el uso sostenible de los recursos. Así mismo, que optimice los costes del servicio del agua, que revise la política tarifaria y procure la implicación y la capacitación de todas las personas usuarias en el uso del agua y en la participación activa.

Y en ese sentido, tomando como ejemplo otra serie de Pactos Sociales por el Agua Pública firmados en otros territorios, queremos presentar a la ciudadanía de Bizkaia un manifiesto y propuestas concretas,



# MANIFESTUA

---

## Bizkaian uraren ziklo integralaren kudeaketa publiko, sozial, demokratiko eta jasangarria izateko eredu baten alde

- 1. URA IZATEKO AUKERA GIZA ESKUBIDEA DA.** *Ura izateko giza-eskubidea aplikatuz, horniduraren kudeaketa giza-zuzentasunez ezarriko dugu –ordaintzeko gaitasuna, ekonomi-zuzentasunaren aurrean –mozkina eta ordaintzeko borondatea tarifa-politikan. Horretarako, gutxieneko dotazioa bermatuko dugu –horren balorea zehaztu beharko litzateke, baina mundu-mailan 60 eta 100 litro pertsona/eguneko dago-, eta hornidura ez eteteko konpromisoa gizarte-egoera ahulean daudenen kasuan, eskubide honen babesean pertsonaren eta etxeko beharrianak betetze aldera bizitzeko gutxienekoa bermatuz.*
- 2. URAREN TITULARITATEAK ETA KUDEAKETAK %100 IZAN BEHAR DUTE PUBLIKO.** *Ura jabetza publikoko ondarea da eta horniketa eta saneamendu zerbitzuak giza eskubideekin eta herritarrekin lotuta daude. Zerbitzu horiek ez dira merkatuaren logika, negozio pribatuaren irizpideak eta lehentasunak erabilia kudeatu behar, kudeaketa publikoa eta irabazi asmorik gabea erabilia baizik, hau da, interes orokorreko zerbitzu gisa. Uste dugu zerbitzu publikoak kudeaketa publikoa eginda eman daitezkeela, kalitate eta eraginkortasun estandar zorrotzenak betez, langile publikoen konpromisoa eta ardurarekin eta herritarren partaidetza izango duen kudeaketa gardena bermatuz. Horretarako, berariaz aldarrikatzen dugu, uraren ziklo integralaren kudeaketa bere gain hartuko duen entitate publikoa edozein izanda ere,*
- 3. KOOPERAZIOA ETA ELKARLAN PUBLIKOA.** *Lurraldeko ura kudeatzen dutenen arteko elkarlan eta kooperazio handiagoaren aldeko apustua egiten dugu, eta baita administrazio publikoaren eta Unibertsitatearen artekoa ere. Entitate publikoen arteko elkarlana, ikerketa eta garapena sustatu behar dira zerbitzu publikoen etengabeko hobekuntza eta uraren kudeaketa eta kalitatea hobetzeko. Uraren ziklo integralaren kudeaketak zenbait erronka tekniko, sozial eta ingurumen eta ekonomia arloko erronkak ditu, horiei modu koordinatuan eta elkarlanean erantzun behar diete herritarren elkarte eta erakundeek, operadoreek, erakundeek eta gobernuek. Helburua uraren politika jasangarria garatzea izan behar da, guztiona dena eta ura izateko giza eskubidea kontuan hartuta, eta Administrazio publikoak, ardura, gardentasun eta eraginkortasun planteamenduak erabilia, bermatu behar du horniketaren eta saneamenduaren zerbitzu publikoa ematea, eskubidea dela ulertuz.*
- 4. ENPLEGUAK PUBLIKOA ETA KALITATEKO IZAN BEHAR DU.** *Uraren ziklo integralaren kudeaketa enplegu berriak sortzeko iturri izan daitezkeela eta izan behar duela diogu. Uste dugu uraren ziklo integralaren kudeaketarekin zerikusia duten enplegu guztiak publikoak izan behar direla, era horretan*



*interes publikoa eta orokorra ez duten interesak eta langileen lan-baldintzen prekarizazioa eta segurtasuna saihesteko. Erakunde sindikalekin batera enpleguen kalitate, segurtasun eta egonkortasun baldintzak bermatzeko beharrezkoak diren neurriak har daitezten lan egingo dugu. Uraren hiri zikloaren kudeaketan lan egiten duten langileen lan-eskubideak bermatuta egon beharko dira. Langileek zerbitzuaren funtzionamendu, kudeaketa eta politiken formulazioan parte hartzeko beharrezkoak diren mekanismoak jarriko dira.*

5. **EZINBESTEKOA DA INGURUMEN, EKONOMIA ETA EGITURA ARLOKO JASANGARRITASUNA**

*Bizkaiko ura kudeatzen duten entitateei -partzuergo eta udalak- euren jarduera eremuan eta Uraren Esparru Zuzentarauarekin bat, uraren ziklo integralaren jasangarritasuna ziurtatuko duten beharrezko erabakiak hartzeko exijitzen diegu, hiru esparru hauek kontuan hartuta:*

- *Ingurumen arloan. Horniketa iturrien kalitatea gordez; hiriko beharrak asetzeko beharrezkoa den gutxieneko baliabidea erabiltzen dela ziurtatuz; azpiegituren gaineko esku-hartze eta sentsibilizazio eta prestakuntza programak oinarri hartuta eta kontaminazioaren prebentzio-programak eginez.*
- *Arlo ekonomikoan. Gastuan xahuketa saihestuz eta berme sozial, ekitate, eraginkortasun eta gardentasun printzipioetan oinarritzen diren tarifak ezarriz.*
- *Egitura arloan. Ura bezeroengana baldintza onenetan iristeko beharrezkoak dien inbertsioak planifikatu eta burutuz, unean uneko araubideekin bat; horniketa sareetan dauden galerak kontrolatu eta txikiagotuz; uraren kalitatea kasu bakoitzean dagokion helburuari egokituz; eta ibilgu naturalera isuri aurretik, udal-kolektore sareak jasotzen dituen ur guztiak modu egokian tratatuz. Hori guztia eskura dauden teknologia eraginkorrenak erabiltzen saiatuz eta ahalik eta energia gasturik txikienarekin.*

6. **ZERBITZUAREN KOSTUARI AURRE EGITEKO TARIFAK BERE OSOAN BERRIRO INBERTITZEA.**

*Horniketa eta saneamendu tarifen bidez eta uraren ziklo integralari lotutako diru-laguntza, kreditu-eragiketa, edo bestelako edozein bidez lortzen diren diru-sarrera guztiak zerbitzu horien kostua ordaintzera bideratzearen alde egingo dugu.*

7. **HERRITARREN PARTAIDETZA ERAGINKORRA LORTZEKO KUDEAKETA GARDENA, ANITZA ETA IREKIA.**

*Uste dugu, ez dela nahikoa kudeaketa publikoa bermatzea, uste dugu gizartearen kontrola eta demokrazia parte-hartzailerako modu berriak sustatu behar direla, herritarren partaidetza eraginkorra eta proaktiboa bermatzeko, Aarhuseko Konbentzioak ezarri zuen bezala, 2003ko maiatzaren 26ko 2003/35 Zuzentarauak Europako araubidera, eta uztailaren 18ko 27/2006 Legeak Espainiako araubideari txertatua, horren bidez arautzen dira "ingurumen informazioa eta ingurumenaren arloko partaidetza publikoa eta justizia eskuratzeko eskubideak". Horregatik, kudeaketa publikoa egiten duen*



*entitateak bere jardueren eta erabakien berri, horren menpeko botere publikoei zein herritarrei, emango dien kudeaketa ereduaren alde gaude. Herritarren etengabeko fiskalizazioa ezinbestekoa da kudeaketa publiko gardena eta eraginkorra bermatzeko.*

8. **KONTSUMO ARDURATSUA ETA INPLIKATU GUZTIEN ALDETIK URA AURREZTEA SUSTATZEAREN ALDEKO APUSTUA.** Uraren erabilera jasagarria bermatzen duten tarifa progresiboak sustatuko ditugu, herritar guztientzako izango diren kalitate handiko zerbitzuak bermatzeko zigorrak, salbuespenak, eta pizgarriak jasoko dituztenak, eta halaber eskari eraginkorraren kudeaketa, kalitate egokia, uraren ziklo integralaren finantzari eustea eta jakina, urarekin zerikusia duten ingurumen arloko balioak. Tarifen egituraketak izaera soziala duten tarifak jaso behar ditu, bazterketa jasaten duten kolektiboak eta horien egoera ekonomikoa kontuan hartuz.
9. **BULTZADA SENDOA TXORROTAKO URAREN KONTSUMOARI.** *Konpromisoa hartzen dugu "txorrotako" ura sustatzeko kanpainak bultzatzeko eta botilako uraren kontsumoa murrizteko, eta horri lotutako inpaktu ekologikoak, besteak beste honako bideak erabilia: Txorrotako ura edan eta uraren erabilera ona egiteko informazio publikoa emateko ekimenak, uraren kalitatea bermatzeko ahaleginak indartu, zentro publikoetan txorrotako ura erabili eta iturri publikoen sare garrantzitsua indartu.*
10. **LEGEDIA ETA ARAUBIDEA EGOKITU.** Azkenik, konpromisoa hartzen dugu beharrezkoa den guztia egiteko indarrean dauden araudiak (erregelamenduak, ordenantzak, etab.) hitzarmen honetako konpromisoetara egokitzeko, modu berezian gizakiak ura izateko eskubidea egiazko ezarpenari dagokionean. *Horretarako, horniketa eta saneamenduko udal araubidetik kendu egingo ditugu ez ordaintzeagatik horniketa eteteak ezintasun ekonomikoa ematen den kasuetan, hala aurreikusita dagoenean. Zentzu horretan, dagokion arauan zehaztu egin beharko da hemen ezartzen diren oinarriei eragin diezaiekeen edozein erabakik, mota honetako zerbitzuak pribatizatzeke balizko proposamen bat esaterako, jendaurreko informazio prozesu sakon eta zabala izan beharko lukeela, emaitzak lotesleak izateko berme nahikoak dituen herri kontsulta bat eginda.*





# MANIFIESTO

---

## Por un modelo de gestión del ciclo integral del agua público, social, democrático y sostenible en Bizkaia

- 1. EL ACCESO AL AGUA ES UN DERECHO HUMANO.** *En aplicación del derecho humano al agua, se ha de implementar la gestión del suministro con criterios de equidad social -capacidad de pago, frente a la equidad económica –beneficio y voluntad de pago- en las políticas tarifarias. Para ello, se debe garantizar una dotación mínima–cuyo valor debería concretarse, pero que en el contexto mundial está entre 60 y 100 litros por persona y día-, y el compromiso de prohibir los cortes de agua a los hogares en situación de vulnerabilidad social, garantizando un mínimo vital para cubrir las necesidades personales y domésticas amparadas por este derecho.*
- 2. LA TITULARIDAD Y GESTIÓN DEL AGUA HA DE SER 100% PÚBLICA.** *El agua es un bien de dominio público y los servicios de abastecimiento y saneamiento se vinculan a derechos humanos y de ciudadanía. Dichos servicios no deben ser gestionados desde la lógica del mercado, bajo criterios y prioridades de negocio privado, sino desde la gestión pública, sin ánimo de lucro, como un servicio de interés general. Creemos que desde la gestión pública se pueden prestar los servicios públicos cumpliendo con los estándares más exigentes de calidad y eficiencia, contando con el compromiso y responsabilidad de los empleados públicos, y garantizando una gestión transparente en la que participe la ciudadanía. Por ello, declaramos expresamente que, con independencia del ente público que asuma la gestión del ciclo integral del agua, velaremos porque la titularidad del mismo sea siempre cien por cien pública, no admitiendo el acceso de empresas privadas a su accionariado, ni a la gestión de los servicios básicos mediante su externalización.*
- 3. UNA COOPERACIÓN Y COLABORACIÓN PÚBLICO-PÚBLICO.** *Apostamos por una mayor colaboración y cooperación entre los diferentes entes gestores del agua del territorio, así como entre administraciones públicas y la Universidad. Se ha de procurar la ayuda mutua entre entes públicos y la investigación y el desarrollo para la mejora constante de los servicios públicos y una mejora en la gestión y calidad del agua. La gestión del ciclo integral del agua se enfrenta a una serie de retos técnicos, sociales, medioambientales y económicos que es necesario encarar de manera coordinada y colaborativa entre las asociaciones y organizaciones ciudadanas, operadores, instituciones y gobiernos. Su objetivo debe ser desarrollar una política de agua sostenible desde el enfoque de lo común y del derecho humano al agua, entendido éste como un derecho a una provisión de servicios públicos de abastecimiento y saneamiento que debe ser garantizada por la Administración pública desde planteamientos de responsabilidad, transparencia y eficiencia.*



4. **EL EMPLEO DEBE SER PÚBLICO Y DE CALIDAD.** *Sostenemos que la gestión del ciclo integral del agua puede y debe ser un yacimiento importante para la generación de nuevos empleos. Consideramos que deben ser públicos todos los empleos relacionados directamente con la gestión del ciclo integral del agua para evitar la aparición de intereses ajenos a lo público y el interés general y la precarización de las condiciones de trabajo y de la seguridad de los trabajadores. Actuando en colaboración con las organizaciones sindicales, velaremos porque se adopten las medidas oportunas para garantizar condiciones de calidad, seguridad y estabilidad en los empleos. Deberán estar garantizados los derechos laborales de los trabajadores que participan en la gestión del ciclo urbano del agua. Se proveerán los mecanismos necesarios para que los trabajadores participen en el funcionamiento, la gestión y la formulación de políticas del servicio.*
5. **ES IMPRESCINDIBLE LA SOSTENIBILIDAD AMBIENTAL, ECONÓMICA Y ESTRUCTURAL.** *Exigimos a los diferentes entes gestores del agua en Bizkaia –consorcios y municipios- que ejerzan la responsabilidad que tienen en la adopción de las decisiones oportunas que aseguren la sostenibilidad del ciclo integral del agua en su ámbito de actuación, de acuerdo con la Directiva Marco del Agua, desde tres ámbitos diferentes:*
- *Medioambiental. Preservando la calidad de las fuentes de suministro; asegurando que se utiliza el mínimo recurso necesario para satisfacer las necesidades de la ciudad; realizando programas de prevención de la contaminación, basados tanto en la intervención sobre las infraestructuras como en programas de sensibilización y formación; minimizando el efecto de los vertidos a cauce público; y compensando las afecciones medioambientales.*
  - *Económica. Evitando el despilfarro en el gasto y aplicando tarifas que se fundamenten en los principios de garantía social, equidad, eficiencia, sencillez y transparencia*
  - *Estructural. Planificando y realizando las inversiones necesarias para que el agua llegue a los usuarios en las mejores condiciones, de acuerdo con las normativas aplicables en cada momento; se controlen y minimicen las pérdidas en las redes de abastecimiento; se adecúe la calidad del agua al uso a que se destine en cada caso; y se traten adecuadamente todas las aguas captadas por la red de colectores municipales antes de ser vertidas a cauce natural. Todo ello intentando utilizar las tecnologías más eficientes disponibles y con el menor gasto energético posible.*
6. **LA REINVERSIÓN ÍNTEGRA DE LAS TARIFAS PARA SUFRAGAR EL COSTE DEL SERVICIO.** *Velaremos porque todos los ingresos que se obtengan a través de las tarifas de abastecimiento y saneamiento, así como las subvenciones, operaciones de crédito, o cualquier otro medio, vinculados al ciclo integral del agua, se destinen a sufragar los costes de dichos servicios.*



- 7. UNA GESTIÓN TRANSPARENTE, PLURAL Y ABIERTA A LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA EFECTIVA.** *Entendemos, que no basta garantizar la gestión pública, sino que es preciso promover nuevas formas de control social y de democracia participativa, que garanticen transparencia y participación ciudadana efectiva y proactiva, tal y como estableció la Convención de Aarhus, transpuesta a la normativa europea por la Directiva 2003/35/, de 26 de mayo de 2003, y a la normativa española por la Ley 27/2006, de 18 de julio, reguladora de los “derechos de acceso a la información, de participación pública y de acceso a la justicia en materia de medio ambiente”. Por ello, apostamos por un modelo de gestión en el que el ente público gestor rinda cuentas de sus actividades y decisiones, tanto a los poderes públicos de los que dependa como a los ciudadanos. La fiscalización ciudadana continua es imprescindible para preservar una gestión pública transparente y eficiente.*
- 8. APOSTAR POR UN CONSUMO RESPONSABLE E INCENTIVAR EL AHORRO DEL AGUA POR PARTE DE TODOS LOS/AS IMPLICADOS/AS** *Promoveremos tarifas progresivas y que garantice el uso sostenible del agua, incluyendo penalizaciones, exenciones e incentivos que garanticen el acceso universal de los ciudadanos a servicios de alta calidad, una gestión de la demanda eficiente, la calidad adecuada, el sostenimiento financiero del ciclo integral del agua y por supuesto, los valores ambientales asociados al medio hídrico. La estructura tarifaria ha de incluir tarifas de carácter social que tengan en consideración colectivos desfavorecidos y su situación socioeconómica.*
- 9. UN FUERTE IMPULSO AL CONSUMO DE AGUA DEL GRIFO.** *Nos comprometemos a impulsar campañas de fomento del agua de "grifo" y a reducir el consumo del agua en botella, y los impactos ecológicos relacionados, a través de entre otros: Iniciativas de información públicas de consumo de agua de grifo y de buenos hábitos en el uso del agua, fortalecimiento de los esfuerzos para garantizar la calidad del agua, utilización del agua del grifo en centros públicos y creación de una importante red de fuentes públicas.*
- 10. UNA ADECUACIÓN LEGISLATIVA Y NORMATIVA** *Finalmente, nos comprometemos a hacer lo necesario para que las normas vigentes (reglamentos, ordenanzas, etc.) se adapten a los compromisos del presente pacto, especialmente en todo lo relativo a la aplicación efectiva del derecho humano al agua. Para ello, eliminaremos del reglamento municipal de abastecimiento y saneamiento, en caso de que lo prevea, las suspensiones de suministro por impago en los supuestos de incapacidad económica. En ese sentido deberá especificarse en la norma correspondiente, que cualquier decisión que pudiera afectar a los principios aquí establecidos, como podría ser una eventual propuesta de privatización de este tipo de servicios, sea sometida a un amplio y profundo proceso de información pública que culmine en una consulta ciudadana con las garantías suficientes para que sus resultados fueran vinculantes.*



## SINATZAILEAK | FIRMANTES

---

- ELA, LAB, CCOO, UGT, ESK, STEILAS, EHNE, CNT, CGT.
- EKA, UCE, FACUA
- Ekologistak Martxan, Eguzki, Gernikako Ekologi Lan Taldea.
- Coordinadora de ONGDs de Euskadi, OMAL, Ingeniería Sin Fronteras.
- Federación de Asociaciones Vecinales de Bilbao, Berri Otxoak, Pentsionistak Martxan.
- Fundación Nueva Cultura del Agua.



## KONTAKTUA | CONTACTO

---

E-mail: [urapubliko@gmail.com](mailto:urapubliko@gmail.com)

Twitter: @UraBizkaia

Blog: <https://urpublikoabizkaia.wordpress.com/>